

## 12

# JESUS ETA IKASLEAK TABOR MENDIA

1

Hau zorion-egarria,  
bihotz-hondoko larria,  
non ete da iturria?  
Tabor mendiko bizikizuna  
benetan da pozgarria;  
horra zelango barria  
zeru goitik etorria,  
erne jarri belarria:

3

Jesus argiz jantzirik,  
aidean eta zuririk,  
ez da hain gauza bitxirik...  
Apostoluak pozez zoratzen  
Jesus holan ikusirik;  
ez da munduan tokirik  
ez bestelako izpirik  
daukanik hainbat grazirik.

5

“Pedro, ez zaitez bildurtu,  
zeure senera bihurtu  
ta Neu nazala ziurtu.  
Orain txabolaginen hasteko  
amets ustelak agurtu;  
ta ez bideak laburtu,  
Kalbarioa samurtu...  
Lotatik lehen bait lehen zurtu!”

2

“Zu zaitut, ene Seme ta  
Zu bihotzeko maitea,  
nire atsegin betea!  
Entzun berari, jarrai berari,  
hau nire borondatea:  
Berarengana joatea  
ta danontzat izatea  
salbameneko atea”.

4

Pedro urtenda senetik  
ta zorabioz beterik  
hasi da berbaz lurretik:  
“O ene Maixu, hiru txabola  
ez al dau nahi egiterik?  
Ez da leku bat hoberik,  
ez jairik ta ez besterik;  
ez daigun alde hemendik”.

6

Basamortua da gogor  
Kalbarioa ere hor,  
ta bidean zenbat zoztor...  
Jesusentzat lez guretzat ere  
holako bat ondo dator,  
jokatu ahal daigun jator;  
ona da azukre-koxkor,  
beharrezko jaku Tabor.